

SIMON BOLIBAR

Simon Bolibar ez da Euskalerrian jaioa, naiz ta jatorriz emendik joanak izan bere gurasoak.

Lan aundia egin eban Ego-Ameriketako erriai askatasuna eroa-ten. Izan be, an egozan euskaldunen jokabidea zan ori, baiña gitxi eldu dira Bolibar'en maillara.

Asi-aurretik ez aitzu ikutu aundia izan ebela ango laterrien askatasuna lortzeko masoiak. Onein jokabidea España'ren aurka joatekoa zan, eta Bolibar bera be masoia izan zan. Gero agintari izan zanean debekatu egin ebazan masoiak edo isilleko bazkunak.

Bolibar'en jokabidea gorrotagarria zan askorentzat, etoi lez artu izan zan, beste askorentzat, ostera, benetako askatzaillea zan.

Ikasketak egin-ondoren gudarostera sartu zan eta Madrid'era egin eban ostera bat osaba-izekoak ikertzeko. Ez zan luzaro egon Madrid'en.

Barriro joan zan Karakas'era eta beingoan emaztea il jakon. Sei illebeta baiño ez eben egin ezkontuta.

España'ra etorri zan ostera be, eta gero Frantze'ra ta Italia'ra be bai askatasun-zaleakaz batzarrak egiteko. 1809n. urtean Frantze'k laguntza emon eutson San Martin'eri emoteko eta lan orretan ekiteko. Masoiak be lagun izan ebezan.

Sasoi aretan (1812) liburu bi idatzi ebazan "Kartajena'ko agerpe-na" eta "Granada Barri'ko erritarren gomutakia". Or agertzen dau zergaitik ezin dan lortu errien askatasuna.

Urrengo urteetan militar lez eskasa agertu zan Bolibar eta 1814n. urtean askatzailleak azpiratuak izan ziran eta Bolibar'ek iges egin bear izan eban, Jamaika'ra (1815).

1817n. urtean aletin barriak egin ebazan, baiña alperrik.

1819n. urtean Benezuela'ko Lendakari egin eben eta agintaritza gogorraren alde agertu zan eta bere politikea ardtz-zalea zan, itxuraz demokrazia izan arren. Urte beratan Kolonia sortu eban. Aurrera joian baiña astiro!

España'n Riego (masoia) agintari jarri zanean, 1821n. urtean menperatu eban españatarren gudarostea eta Benezuela aske geratu zan.

Azkenengo urteetan masoiak izan ziran nagusi España'n eta Ameriketan.

Bolibar'ek San Martin'egaz bat egin eban eta askatasuna egoal-derantza zabaltzen asi zan. 1824n. urtean Ayakutxo'ko gudaldiagaz nagusi geratu ziran askatasun-zaleak, baiña lurraldeak askatzea baiño gaitxagoa zan eurak eratzea eta lurraldeak lar zatituta geratu ziran Ego-Amerika osoan eta sortzen ziran agintarizat ez ziran beti demokrazi-zaleak.

Bolibar Kolonia'n finkatu zan eta an be diktadura sortu eban (1828). Urte beratan debekatu ebazan isilleko bazkunak. Ori masoien aurka joian. Ori dala-ta, aste bi geroago erail nai izan eben, Bolibar baiña bizirik urten eban bere maitale zan Manuela Saenz'eri eske-rrak.

1830n. urtean itzi eban agintaritza kongresoaren aurrean, eta abenduaren 17n. egunean il zan eta amabi urte geroago bere gorpua Karakas'era eroan eben.

Askatasuna/independentzia lortu zan baiña beste amets ederrak ez. Ego-Ameriketan ez da lortu Ipar-Ameriketako aurrerapenik.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZIA

Besutz aundiena da gizonaren bizia lurraren gaiñean, berez maitegarri da osasunez batera giza biotzean.

Egiteko aundiak sortzen ditu gizonak bizitzara adi, alkargoa eder da gogo onez lagunduta gizonen lanari.

Guztien laguntzagaz edertzen da bizia maitasun bidean, adiskide jatorrak zoriona daomtze gizonei lurrean.

OLERKIA

Edertasuna dakar itz zoragarri onek beren egoetan, notiñen adimetak ederrez apainduta euren jardunetan.

Buru ta biotza biak alkartzen dira eder gaia apaintzen, eta ondoren datoz lorez apaindutako itz bera goratzen.

Euskera ta euzko anai kutunak dira biak alkarturik, izkuntza jakintsua olerki loratsuak ondo, bat eginik.

PAULIN